

7. BEZEROEKIKO HARREMANAK:

Bezeroekiko harremana web-aplikazio baten bitartez izango da. Bertan, sare sozialak, posta elektronikoa eta telefono zenbaki bat agertuko dira. Sare sozialetan, gure aplikazioaren inguruan sor daitezkeen zalantza ohikoenak argitzen ditugu, argazkiekin lagunduta. Baita, aplikazioaren funtzionamendua azaltzen dugu ere. Bezeroek beste zalantza edo arazo bat izanez gero, posta elektronikoa eta telefono zenbakia izango dute eskura.

Hainbat harreman mota edukiko ditugu gure bezeroekin. Alde batetik, laguntza pertsonala eskainiko diegu, telefono zenbakira deituz edo posta elektronikora mezu bat bidaliz. Bestetik, zerbitzu automatikoak egongo dira. Waldo izeneko laguntzaile birtuala sortuko dugu, bezeroen zalantzak argitzeko. Sortzen zaizkien galderak erantzungo dizkie, aplikazioaren funtzionamendua errazteko helburuarekin.

